

DELHEKETA

ASTE HUNTAKO ELHEPIDEA.

1. Ortzangoko errekan zer denbora zen?
2. Piarres atxemanitza zutena guardetek?
3. Zer da Piarresen zoria?

Ortzango Errekan.

(II)

Uria! jauts-abala? ari zuen orai. Haizeak, bira-bira lurrean bildurik azken ostoa, surfurian zeramazkan alde orotarat. Ametz ihartuek, norbeit edo zerbeit harrapatu nahi izan balute bezala, beren adar luzeak luzatzen zituzten ilunpean...

Bainan, uria, haizeari, hosto eta adarreri konturik egin gabe, bristi brasta bazoan Piarres, han, mugatik hurbil atxeman behar zituen laguneri buruz.

Arbola zilo³ batetarik, huntz⁴ handi bat airatzen zao, xixtuz, eta berchala, burla batean, urrundik kantuz hasten: "Huu, huu!"

— "Zer duk, huntza, huu eta huu? Ez nauk bada izitzeko errexal! — a, iragan gauean bezala, guardak salatzen othe dazkidatak?..."

Eta hor, hirri batean, orhoitzen da Piarres, amak ostioxoan erran bezala, aintzinako gau ilhun batez, Uroneko gain hetan, Azkaingo mugan, guarden eskuetan gelditzer dela. Jan-Batit beren aintzindariaren erraneri behatu gabe, bazoazin sei lagun, biranazka, hogoita hamabortz pintako⁵ untzia bizkarrean. Errekaz erreka, zokoz zoko, Jan-Batit axeri zaharrak galdatzen zioten bezala joaiteko orde, gainez gain bazoazin, Miarrizko itsasargiak bidatzen zitula.

— Bet betan, Serresko Jauregiari hurbil, scietarik azken biak ondotik zituztelarik pentoka gainerat igaitekoak oraino, bi guarda xutitzen zaizkote aintzinean, bertze bi, aldiz, gibeletik⁶ jalitzen.⁷ Halte-latz⁸ Piarresen lagunarekin jada borrokan ari da guardetarik bat, eta bertzea gerruntzetik⁹ lotzera doa Piarresi berari, ahametik, erdi trufan eta hatsa joanik, erraiten diola: "Ago, to, ago, ez deus bat, izpirituan garreuan lagunduko haut berchala!"

Oldar batean, jauzi bat izigarria egin zuen orduan Piarresek, eta gerrikoan guardaren aztaparretan utzirik, bere untzia bethi bizkaian, bazoan orai demuntreak hausteko, aldapari behera. Guarda haren ondotik, kasik hora bezen laster. Olhagaraiko landan huna orai non diren, Piarres bethi aintzinean, bethi eta aintzinago. Guarda sumatzen du hatsantua, ethendua, bainan bethiz han, zonbeit urhatsetan. Behin ere arthiki¹⁰ ez duen untzia¹¹ behar othe du-berhorat!¹² arthiki gaur lehen aldikotz? Ez oraino segurik! Eta sukar¹³ bat belhaunetan, badoa, badoa, ilunbean, bethi eta zaluago¹⁴. Guarda ez du gehiagò gainean... Bainan, oi, Piarresen zoria! Han, landaren buru buruan den keeta nola idek¹⁵ nola handik iragan, guarda gaineratu gabe?...

Borbir

Ez nauk = tu ne m'as, pas.
 Salbatzen dazkidatak =
 = Tu me les dénonce
 (indique etc.)
 = Ago = reste

DELHEKETA

ASTE HUNTAKO ELHEPIDEA.

(III) ADITZ IKASKONTZA.

31. Zeramazkan 32. Zer duk
33. Bazoan 34. Xutitzen zaizkote
35. EREMAN. Conj. forte. Indic. Imparfau
Heick = Les -

Nik neramatzan	= je l'emmeneis
Hik heramatzan	= tu les emmenais
Zuk zineramatzan	= vs ii emmenies
Harek zeramatzan (zeramatzan) il	= il i emmenai
Guk gineramatzan	= ns les emmenio
Zuek zineramatzen	= vs -ii emmenies
Heick zeramatzen	= ils ... emmenai
32. UKAN. <u>Indicatif Présent. (présentement)</u>	

Nik ditat (dinat)	= je l'ai
Hik dük (din)	= tu l'as
Harek dik (din)	= il l'a
Guk diaugu (dinagu)	= nous l'avons
Zuek dezue	= vous l'avez
Heick die (dine)	= ils l'ont
Pluriel (objet) ditenat, ditiat, ditikz, ditin, ditiazu, ditiazu etc	
33. JOAN. <u>Aller. Indicatif</u>	

Present	<u>Imparfait</u>
Ni moa (je vais)	mindoan (je allais)
Hi hoa	hindoan
Zu zoatzi	zinoatzen
Hura doa	zoan
Gu goatzi	ginoatzen
Zuek zoazte	zinoazten
Heck doatzi etc	zoatzin etc